

# AZKEN-SALMENTAK

## 1 - SARRERA

---

Azken-salmenta salbuespenezko izaera duen salmenta modalitatea da, izen honekin edo termino analogo batekin merkatariak iragartzen du. Bere helburu nagusia produktu batzuen izakinak salmentan jartzea da.

Aplikatu beharreko arautegia ondorengoa da:

- Estatuko arautegia: [7/1996 legea](#), Xehekako Merkataritzaren antolamenduarena, martxoaren 1eko [1/2010 legeak](#) aldatua (18, 19, 20, 21, 30 eta 31 artikulua)
- Arautegi Autonomikoa: [7/1994 Legea](#), 1994ko maiatzaren 27koa, (EHAA, 1994-06-13), Merkataritza Iharduerari buruzkoa., ekainaren 25 eko 2 aldaketako [7/200 legeak](#), aldatua, (26 eta 27 artikulua)

## 2 - 7/1996 LEGEA, XEHEKAKO MERKATARITZAREN ANTOLAMENDUARENA

---

### **19 ART. – Informazioa**

Iraupena zehaztu beharko da.

Eskaintza bereziek salmentan dauden artikuluen %50-a baino gutxiago suposatzen dutenean, ezin izango da neurri orokor bezala iragarri

### **20.ART- Prezio-beherapenaren konstantzia**

Aurreko prezioa eta gutxitutako prezioa argitasunez azaldu behar dira. Hala ere, artikulua multzo baten portzentajezko murriztapena denean iragarpen orokorra aski izango da.

### **21.ART- Eskainitako Artikuluen zehaztapena**

Artikuluak prezio arruntean eta prezio murriztuan saltzen badira, orduan argitasunez bereizturik egon beharko dira.

### **30. ART- Kontzeptu espezifikoa**

#### **Arrazoiak**

- a) Merkataritza-ihardueraren betirako edo behin-behineko etenaldia. Behin-behineko etenaldian likidazioaren azken-salmentaren parte izango diren produktuak argitasunez berezita egon behar dira.
- b) Merkataritza establezimenduaren eremu aldaketa edo negozioaren norabidea aldatzen bada modu garrantzitsu batean.
- c) Establezimendua tokiz aldatzen denean edo garrantzizko obrak egiten direnean.
- d) Iharduera normala galarazten duen ezinbesteko kasua

Saltokiaren izakinak izan diren produktu edo salgaietan bakarrik aplikatu daiteke. Azken-salmenta bukatuko da baldin eta hau aurrera eramateko arrazoiak desagertzen badira edota likidazioan dauden produktuak saltzen badira. Aken-salmentaren arrazoiak zein den adierazi beharko da.

### **31.ART- Iraupena eta errepikapena**

**Iraupena:** Gehienezko iraupena hiru hilabetekoa izango da ihardueraren behin-betiko etenaldian izan ezik; kasu honetan urte batekoa izango da.

**Errepikapena:** Azken-salmentak bukatu eta handik hiru urtetara saltzaileak ezin izango du herri berebean azken-salmenten parte ziren antzeko produktuekin zerikusia duen saltokian aritu baldin eta azken-salmentaren arrazoiak "Arrazoiak" ataleko a) eta b) hizkietan oinarrituta bazeuden.

Ezin izango du likidazio berri bat egin saltoki berebean, ihardueraren behin-betiko etenaldi edo ezinbesteko arrazoiaren batekin oinarrituta badago eta epailearen edo administrazioaren ebazpen bitartez ezarri bada.

## **3 - 7/1994 LEGEA, MERKATARITZA IHardUERARI BURUZKOA**

---

### **26. ART- Kontzeptua**

#### **Arrazoiak**

- a) Merkataritza-ihardueraren behin-behineko edo behin-betiko etenaldi osoa edo zatikazkoa. Etenaldia zatikazkoa bada, azken-salmentako salgaiak zeintzuk diren adierazi beharko da.
- b) Lokala itxi edo aldatzea.

Saltokiaren izakinak diren produktu edo salgaietan bakarrik izango du eragina. Azken-salmenta eragin duten arrazoiak eta hasiera-data eta iraupena adierazi beharko dira. Halaber, lehengo prezioa eta salgai horrentzat eskatzen dena edo azken salmentari aplikatu dakioken beste edozein pizgarri ere adierazi beharko da.

**Jakinarazpena:** Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari jakinarazi beharko zaio hasi baino zazpi egun lehenago, zergatia, hasiera-data, iraupena eta salgaien zerrenda azalduz. Zerrenda honek gutxienez ondorengo edukiak bete beharko ditu:

- Azken-salmentaren parte izango diren produktuen identifikazioa. Produktuaren identifikazio zehatza egiteko beharrezkoa den mailararte zabaldu beharko da.
- Mota bakoitzeko artikuluen kopurua.
- Zerrendan agertzen diren artikuluko guztien salmenta-prezioak azken-salmentak egin baino lehen.

### **27. ART- Baldintzak**

Azken-salmentak produktuak salgai egon diren saltokian egin beharko dira, ezinbesteko arrazoiaren batek edo epailearen edo administrazioaren ebazpen batek galarazten ez badu edota salmenta egiteko zergatiek besterik eskatzen ez badute.

## **4 – JAKINARAZPENAK AURKEZTEKO LEKUAK**

---

Azken-salmentako jakinarazpenak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailaren lurralde bulegoan jaso eta bidal daitezke.

[Azken salmentako jakinarazpena eredu](#), Eusko Jaurlaritzaren web orrialdean eskuragarri dago ere

## **5 – KONTUAN IZATEKO ALDERDI GARRANTZITSUAK**

---

- ✓ Azken-salmentarako aurkeztu beharreko dokumentazioa hurrengoa da: azken-salmentaren arrazoiak, hasiera data eta iraupena biltzen dituen jakinarazpena eta izakinen inbentarioa.
- ✓ Azken-salmenta hastean ezin izango da Eusko Jaurlaritzari jakinarazitako zerrendan agertzen ez diren produktuak salmentara jarri.

- ✓ Egiten den publizitatean likidazio mota (erretiroa, uztea, lanak...), hasiera data eta iraupena adierazi beharko dira
- ✓ Azken-salmentara jarritako artikuluek aurreko prezioa eta azken-salmentan eskatzen den prezioa erakutsi beharko dute. Deskontu orokor bat edo familia produktutuko deskontua aplikatzen bada, deskontu edo abantaila hau adieraztea posible da baldin eta bezeroa nahasten ez badu.
- ✓ Beste Azken-salmenta bat aurrera eramateko, aurrekoa bukatu zen epetik 12 hilabete igaro beharko dira, salbuespena: ezbehar batek edo ezinbesteko arrazoi batek sortzen badu.
- ✓ Azken-salmenta produktuak ohikotasunez saltzen diren saltokian aurrera eraman beharko dira, salbuespentzat hartuko diren egoerak: ezinbesteko arrazoia, epailearen edo administrazioaren ebazpenak galarazten badu edo salmenta mota hau sortzen duten arrazoiak horrela eskatzen badute